Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko ekainaren 7a, ostirala — 110 — Viernes, a 7 de junio de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*«20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa jasotzen duen dokumentuaren (2024ko maiatzaren 15ean aurkeztutakoa) hasierako onespena.*

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeita zortzian, besteak beste, ondoren aipatzen den erabakia hartu du:

*Lehena.* Hasierako onespena ematea «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa jasotzen duen dokumentuari (2024ko maiatzaren 15ean aurkeztutakoa eta Visesak sustatutakoa), honako baldintzarekin:

Beharrezkoa izango da behin betiko onarpena eman aurretik zuzenketa hauek egitea:

— Dokumentuak izapidetzeko kronograman adierazitako epe batzuk dagoeneko pasata daudenez; eguneratu egin beharko dira (ikus txosten teknikoko 2.6 puntua).

— Obrak gauzatzeko epeak ere eguneratu egin beharko dira; besteak beste, bigarren faseko urbanizazio obrak 2028 hasierarako amaituta egotea aurreikusi beharko da.

*Bigarrena.* Urbanizatze jarduketa-programaren lehen aldaketa jendaurrean jartzea hogei egunez, programaren edukien funtsezko elementuak jasotzen dituen iragarkia argitaratuz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN zein Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan. Eta, baita, udaletxeko iragarki-ohollean iragarkia jarriz.

Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren web gunean (https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula).

Jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, bidezko alegazioak aurkez daitezen.

*Hirugarrena.* Erabakia jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

Urbanizatzeko Jarduketa-Programaren lehenengo aldaketa honetan jasotzen diren oinarrizko edukiak honakoak dira:

— Jarduera integratua: «Amarotz paper-fabrika» azpiesparrua.

— Gauzatze-araubidea: hitzarmena.

— Eraikigarritasun fisikoa:

Sestra gainean: 28.791 m²/t.

Sestra azpian: 15.000 m²/t (HAPBren 2. aldaketan, 12.706 m²/t).

— Urbanizazio-aurrekontua (2. fasearena): 1.007.074,52 €.

— Urbanizazio-kargak: 52.544.246,87 €.

Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, izapide-egintza bat denez, ezin baita haren aurka errekurtsorik

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Aprobación inicial del documento de primera modificación del Programa de Actuación Urbanizadora del subámbito «20.1 Papelera Amarotz» (presentado el 15 de mayo de 2024).*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa, con fecha veintiocho de mayo de dos mil veinticuatro, ha adoptado, entre otros, el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar inicialmente. el documento que recoge la primera modificación del programa de actuación urbanizadora del subámbito «20.1 Papelera Amarotz» presentado el 15 de mayo de 2024 y promovido por Visesa, con la siguiente condición:

Antes de la aprobación definitiva será necesario realizar las siguientes correcciones:

— Dado que ya han transcurrido algunos de los plazos señalados en el cronograma de tramitación de documentos, deberán actualizarse (ver punto 2.6 del informe técnico).

— Se deberán actualizar los plazos de ejecución de las obras, incluyendo la previsión de finalización de las obras de urbanización de la segunda fase para principios de 2028.

*Segundo.* Someter a información pública la primera modificación del programa de actuación urbanizadora por un plazo de veinte días, mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en los diarios Diario Vasco, Berria y Tolosaldeko Ataria. Y también mediante anuncio en el tablón de edictos del Ayuntamiento.

Asimismo, estará a disposición de los interesados/as en la página web del Ayuntamiento de Tolosa (https://udala.tolosa.eus/es/administracion-municipal/tablon-de-anuncios).

Durante el período de información pública el expediente quedará a disposición de cualquier persona interesada en examinarlo, a fin de que puedan formularse las alegaciones que consideren oportunas.

*Tercero.* Notificar el acuerdo a los titulares de los bienes y derechos afectados por las actuaciones.

Los contenidos básicos que se recogen en esta primera modificación del Programa de Actuación Urbanizadora son los siguientes:

— Actuación integrada: subámbito «Papelera Amarotz».

— Régimen de ejecución: convenio.

— Edificabilidad física:

Sobre rasante: 28.791 m²/t.

Bajo rasante: 15.000 m²/t (12.706 m²/t en la 2.ª modificación del PEOU).

— Presupuesto de urbanización (fase 2): 1.007.074,52 €.

— Cargas de urbanización: 52.544.246,87 €.

El presente Acuerdo no agota la vía administrativa por tratarse de un acto de trámite contra el que no cabe recurso alguno,

ESKU6c3c1c86-5d15-4710-8226-cd831833afb1

EK\CV GAO-I-2024-04127

jarri, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoa.

Tolosa, 2024ko ekainaren 3a.—Kristina Pelaez Errazkin, zinegotzi delegatua. (4127)

sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Tolosa, a 3 de junio de 2024.—La concejala delegada, Kristina Pelaez Errazkin. (4127)

EK\CV GAO-I-2024-04127



EKS | CSV: ESKU6c3c1c86-5d15-4710-8226-cd831833afb1
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110*